

BIH – TICKETBAI BETETZEA

1. BIH betebeharra duten zergadunek TicketBAIren informazioa bidaltzea

TicketBAI betebeharra duen eta azaroaren 7ko 467/2017 Foru Aginduaren 9. artikulua arabera BIH betebeharraren mende dagoen zergadunak honela bete behar ditu obligazio horiek:

Egindako fakturen erregistro liburuan eman beharreko informazioari dagokionez, honela jokatu behar du abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 63. artikuluan jasotakoari jarraituz:

a) TicketBAI obligazioa aplikagarri duten faktura guztietan, TicketBAIren araudian ezarritako moduan eta epeetan beteko du obligazio hori, eta, horretarako, abenduaren 23ko 521/2020 Foru Aginduaren bidez onetsitako I. eranskinean zehaztutako XML fitxategiko eremuak beteko ditu. TicketBAIren bidez igorritako datuek BIH sisteman datu berberak betetzen dituztela ulertuko da.

b) BIH obligazioa betetzeko bete behar diren eremuak ez badira osatu TicketBAI betebeharra betetzean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro liburuak eramateari buruzko 47/2013 Foru Dekretuaren 36 ter artikuluan ezarritako epeetan beteko dira, bitarteko hauetako edozeinen bidez:

a´) Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zergadunaren esku jarriko den OsatuBAI web formularioan sartuz.

b´) Osatu fitxategia bidaliz, ekainaren 14ko 330/2022 Foru Aginduaren I. eranskinean arautzen diren «Osatu» zerbitzuaren beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak kontuan hartuta.

2. TicketBAI betebeharretik salbuetsitako eragiketen informazioa bidaltzea.

TicketBAI betebeharretik salbuetsitako fakturei dagozkien XML fitxategiak bidaltzeko, aintzat hartuko da balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak arautzen dituen azaroaren 7ko 467/2017 Foru Aginduak ezarritakoa, Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 36 ter artikuluan araututako epeetan.

Inola ere ez da informazio bera bikoiztuta bidaliko bi bideetatik.

TicketBAI betebeharretik salbuetsita daudenek borondatez betebeharrak horretara atxiki daitezke. Honen berri izateko ondorengo FAQ 3 irakurtzea gomendatzen da.

3. BEZaren subjektu pasibo naiz eta Berehalako Informazio Hornidurara (BIH) behartuta nago Gipuzkoan; TicketBAI obligazioa bete behar ez badut ere, nire eragiketa guztien berri emateko TicketBAI fitxategiak Gipuzkoako Foru

Ogasunera bidaltzea aukeratu dut borondatez. Posible al dut eskatzea TicketBAIra borondatezko eran bidaltzen ditudan datuak baliagarriak izan daitezela BIHaren betebeharra betetzeko, jaulkitako fakturen erregistroak hornitzeari dagokionez?

Zure eragiketa guztien berri TicketBAI fitxategiak bidaliz emateko konpromisoa hartzen baldin baduzu TicketBAI erabiltzera behartutakoen baldintza berberetan, beti eskatu dezakezu jaulkitako fakturen erregistro liburua BIH sisteman bete dadila baterakorrak diren eremuetan. Horretarako, konpromiso hori komunikatu behar duzu, bai eta eskatu ere BIHa egin dadila TicketBAI fitxategietako datuak eskualdatuta, hori guztia Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusiko Zeharkako Zergen Zerbitzuari –Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Atalari– zuzendutako idazkia dela medio.

Kontuan izan ezen, jasotako fakturei buruz datu gehiago baldin badaude BIH sistemara eraman behar direnak eta TicketBAI altako fitxategietan jasota ez daudenak, OSATU Zerbitzuaren bitartez bidali beharko direla (datu horiek erresidualak dira eta ez da beharrezkoa izaten jaulkitako faktura informatu gehienetan betetzea). Era berean, TicketBAI betebeharretik salbuetsitako faktura espezifikoak baldin badaude (adibidez, foru lurraldeetan ezarrita ez dauden hartzaileek egindako fakturak), haien informazioa zuzenean bidali beharko da jaulkitako fakturen BIHko liburura. Gainera, BEZaren gainerako liburuei buruzko informazioa ere jarraitu beharko duzu bidaltzen BIHra.

Aurrekoa beren borondatez BIHra biltzea aukeratzen duten BEZaren subjektu pasiboei ere aplikatu dakieke, TicketBAI obligazioa ere borondatez betetzen badute.

4. Urteko informazioa bidaltzea jasotako fakturen erregistro liburura, inbertsio ondasunen erregistro liburura, Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen erregistro liburura eta jaulkitako fakturen erregistroei lotutako zerga-garrantzia duen informazioa.

Jasotako fakturen erregistro liburuan, inbertsio ondasunen erregistro liburuan, Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen erregistro liburuan, eta jaulkitako fakturen erregistroei lotutako zerga-garrantzia duen urtero eman beharreko informazioari dagokionez, kontuan hartuko da azaroaren 7ko 467/2017 Foru Aginduak, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak arautzen dituenak, xedatutakoa.

5. Zer gertatzen da Osatu fitxategi batekin bete den TicketBAI fitxategia bidali duen zergadunak geroago aldaketa bat bidaltzen badu Zuzendu fitxategiaren bidez? Berrir bidali behar al du Osatu fitxategia?

Ez.

6. BIH betebeharra duten zergadunek ba al dute TicketBAIn egindako eragiketen kobrantzei buruz informatu behar, kutxa irizpidearen araubide berezira bilduta badaude?



Ez. Kutxa irizpidearen araubide berezira bilduta dauden subjektu pasiboek beren eragiketen kobrantzei buruz informatu behar badute, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak arautzen dituen azaroaren 7ko 467/2017 Foru Aginduari jarraituko diote, Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 36 ter artikuluan araututako epeetan.